

Herri Aldizkaria Otomotz

□ Aipamen berezia merezi du Santa Anastasia jaiak prestatzen eta girotzen lan handia egin duen **EUSKAL JAIA TALDEAK**. Taldea iaz sortu zen, euskal ohitura eta kulturaren alde lan egiteko asmoz, eta aurten jaien antolaketa lanetan laguntzeaz gain, Santa Anastasia jaien nortasuna herritarrei ezagutarazteko, euskal jaiari inguruko ziklo arrakastatsua antolatu dute. Herritar asko hurbidu zen joan zen astean Euskal Jaiaren historia azaldu zuten diapositiba eta bideo emanaldietara eta urte desberdinetako partaidez osatutako mahainguruan asko eztabaidatu zen.




□ Zumarragako Bisasti AEK euskaltegiak, **HEMEN BAT** euskararen erabilpenaren aldeko kanpaina jarri du martxan. Ikasleek euskaltegitik kanpo, euskaraz hitz egiteko duten arazoari irtenbidea emateko asmoz sortutako kanpaina da. Kanpainarekin bi helburu lortu nahi dira, ikasleek kalean euskaraz hitz egiteko aukera izatea bate-tik, eta gure herri-etan euskaraz hitz egitea lortzea beste-tik. Horretarako euskaraz egiteko konpromezua hartu duten herritar eta euskara ikasleei, **HEMEN BAT** logotipodun txapa banatu zaie eta aurrerantzean ere banatuko zaie. Txapak, **HEMEN BAT EUSKARAZ EGITEN DUENA** esan nahi du eta ikurtxoaren daramaten arteko harremana euskaraz egingo dela adierazten du.



□ Urtero bezala, **ANTIGUAKO MUSIKALDIAK** doinu atseginez bete du Antiguako Baseliza herriko zaleen gozamenerrako. Iraileko musikaldi honek, aurten bere XII. edizioa bete duenak, 5 larunbatetan era errazean gerturatu gaitu musikara. Aurten gregorianoa, perkusioa eta metal eta kordazko instrumentuak izan dira protagonista. Aukera zabala beraz marko zoragarria den Antzinako Baselizan. Publikoaren harrera ezin hobea izan zen eta musikarien maila altua ere aipatu behar da.

□ Zumarragako Musika Bandako zuzendari ohia zen **JESUS GONZALEZ BASTIDA**, Tarragonan hil zen 80 urte zituela. Irailaren 11n izan zen hileta elizkizuna eta bertara Zumarragako herria eta Zumarragako musika banda ere gerturatu zen bere zuzendari izandakoari azken agurra ematera. Gonzalez Bastidaren lana esku soinuaren arlora ere zabaldu zen, irakasle izan baitzen. Sormenari dagokionez, **Zumarragako Martxa** berari zor zaio.



ARGIKI
ARGIGINTZA
PARRA anaiak C.B.
S. Esnaola 6, etxeazpia
20700 ZUMARRAGA © 72 41 64

UDAL URRETXU-ZUMARRAGA
EUSKALTEGIAK
MATRIKULAZIOA ZABALIK!!
MAILAK GUZTIAK, BEKA SISTEMA
© 72 33 10
Labeaga 42, URRETXU 20700

Balentiña. JATETXEA
Urola, 6 © 72 50 41
20700 - ZUMARRAGA

LURRA DANTZA TALDEAK 30 URTE BETE DITU



Noiz eta nola sortu zen Lurra dantza taldea? Zenbat zarete?

1965. urtean sortu zen, urretxuar eta zumarragarrek osatzen zuten "Batasuna" izeneko taldea desegin zenean. Euskal Jaia amaitu eta gero dantzariak arazoren bat izan zuten eta ia bere osotasunean neskez osaturiko talde bakarra gelditu zen, **LURRA** Dantza Taldea. Garai hartako egoera politikoa zela eta, hasierako dantza talde haren helburua errebindikatioa zen.

Guztira 207 lagun gara, baina bi taldetan banaturik gaude, alde batetik 40 pertsonen osaturiko helduen taldea eta bestetik, 4tik 16 urte bitarteko haurren.

Urretxuko zein ekitalditan parte hartzen duzue?

Urretxuko jaietan bost ekintzetan egiten dugu dantza: jubilatuen egunean, folklore jaialdian, txistulari kontzertuan, Bedaioko Ingurutxoan eta Euskal Jaian. Lau ikastaro ere antolatzen ditugu urtean zehar, arin-arin eta fandango, San Juan sua, Ihauteriak eta Bedaioko Ingurutxo, hain zuzen ere.

Bertako kultura kanpoan ezagutarazten ari gara

Urtero ihauterietarako, Euskal Herriko herri batean egin ohi diren

1965. urtean sorturiko talde honek bere 30. urtemuga ospatzeko asmoz, ekintza ugari antolatu ditu, Urretxuko jaietarako batipat. Ekitaldi horien berri eta urte mordoska hauetan izandako helburu eta asmoak ezagutzeko, taldeko partaideak ekarri ditugu OTAMOTZ-eko orrialdeetara

dantzak ikasi eta Urretxun dantzatzen ditugu.

Euskal Herritik kanpo non dantzatzen duzue eta zer nolako harrera izan duzue?

Atzerrian Frantzia izan gara bitan, baita Alemania, Portugal eta Italian ere. Estatu mailan, Aragoan, Galizan, Asturiasen, Errioxan, Bada-jozen... Aurten Bartzelonara joango gara. **LURRA** dantza taldearentzat oso positiboa izaten da beste herrialdeetara joatea, geuk bertako kultura eta bidenabar beraiek geurea ezagutzeko.

30 urte hauetan zeuen helburu eta asmoak bete al dira?

Oro har baietz uste dugu, folklore mailan lan handia egiten ari garela eta gure dantza maila ere ona delako. Guk bi helburu nagusi ditugu, alde batetik, jendeari folklorea zer den erakustea eta bestetik, aintzinako usuarioak berreskuratzea. Adibidez, "Puska biltzea"-ren usuarioa berreskuratu egin dugu eta orain dela bi urte hasi ginen ihauterietan baserriz baserri dantzatzen. Baserritarrek ematen dizkiguten jakiekin afaria egiten dugularik.

Ze ekintza prestatu dituzue 30. urteurrena ospatzeko?

Euskal Jaietan "mairuaren guda" egin genuen. Aspaldian, XVII. mendean, Urretxu eta Antzuolako herriek zuten elkartasuna zela eta, Urretxuko jaietara antzuolakoak etortzen ziren aipatutako guda antzeztera eta Antzuolako jaietan urretxuarrak joaten ziren. Horregatik

taldekook pentsatu genuen usadio hau berreskuratzea eta 30. urtemuga ospatzeko ekitaldiaren barne antolatzea.

Horrez gain, udalaren dirulaguntzarik jaso ez duen aldizkaria banatu genuen herri arteko folklore jaialdian dohainik, taldeari buruzko historia eta iritziak zabaldu asmoz.

Irailaren 30erako dantza jaialdia antolatu dugu Urretxuko pilotalekuan, taldea osatu duten dantzariak eta gaur egunekoak parte hartuko dutelarik. Jaialdia amaitu eta gero afaria izango da.

Bestalde, taldearen jantzi eta tresneriari buruzko erakusketa ere antolatu dugu, irailaren 26tik urriaren 1era bitartean, liburutegi berria izango den lokalean.

Zeuen talde ikuspegitik nola ikusten duzue etorkizuna?

Dantzari gehienak ikasleak izateak arazoak sortzen dizkigu, jaialdi gehienak udan izaten direlako eta orduan azterketak izaten dituztelako.

Beste problema bat diruarena da, juxtu ibiltzen baikara, udaletik jasotzen dugun dirulaguntza **Herri Arteko Folklore Jaialdia** eta **dantzari txiki eguna** antolatzeko behar izaten dugu. Dantza ekitaldietatik oso diru gutxi jasotzen dugu, Euskal Herri mailan oso gutxi antolatzen direlako. Hori dela eta, beste diru sarrera desberdinekin konpontzen gara, ezkontzekin eta haurrek ordaintzen duten kuotekin. Arazoak arazo lanean dihardugu Euskal Herriko folklorea bultzatu asmoz.

JAKA

KRISTALDEGIA

Ipeñarrieta, 18
20700 URRETXU

© 72 14 13

MASTER - Hezkor

CADENA

Zumarragako elektrogailu erakusketarik handiena!

Prezio eta modeloetan aukera benetan aparta!

Urdaneta Hiribidea, 5 © 72 41 31
20700 ZUMARRAGA

UROLA

ELEKTRATRESNAK

© 72 02 15 - Faxa.: 72 52 91
S. Esnaola, 2 ZUMARRAGA 20700

KILOMETROAK 85, DUELA HAMAR URTE



Gezurra badirudi ere, hamar urte igaro dira Gipuzkoako ikastolen festa Zumarraga-Urretxun izan zela. Aurreko bi urteetako eskaerek ezetza jaso bazuten ere, hirugarrenean, Urola-Garaia eskualdeari egokitu zitzaion **KILOMETROAK** antolatzea.


Eskaera bateratua izan zen Legazpiko **Haztegi** eta Urretxu-Zumarragako **Lourdesko Ama** ikastolak egindakoa. Hain zuzen, hau zela eta, zirkuitoa antolatzerako orduan, tira-bira batzuk sortu ziren.

Hasieran hiru herriak lotuko zituen ibilbidea egitea pentsatu bazuten ere, luzeegia zela konturatu ziren. Honela, **Haztegi** ikastolak bat eta **Lourdesko Ama** ikastolak beste bat egin zuten eta, jarraian, federazioaren eskutan utzi bietako bat aukeratzeko erabakia. Federazio-koek, Orereta ikastolako iazko antolatzaileak bidali zituzten proposatutako bi ibilbideak ikuskatzera eta hauek, Zumarraga-Urretxuko ikastolak eginiko zirkuitoa aukeratu zuten.

Honelako egun bat antolatzeak, argi dago lan handia dakarrela. Datu gisa, esan beharra dago 1500 pertsona ibili zirela antolaketa lanetan. Bildutako dirua, berriz, etekin garbi moduan, 16 milioi ingurukoa izan zen. Diru hau, ekintza ezberdinak aurrera eramateko erabili zen, beti ere, helburu hau zuten ekintzak zirelarik: jatorriz erdalduinak diren haurrak euskaldundu eta ikasketak euskaraz egin ahal izateko plangintza prestatzea.



Honela bada, ohiturari jarraikiz, urriaren lehen igandean, hilak 6 orduan, ospatu zen **KILOMETROAK**, arrakasta izugarria izan zuelarik. Eguraldia lagun, egundoko jendetza inguratu zen Urretxu-Zumarragara, ibilbidea jendez gainezka egon zelarik. Dударik ez da luzaroan ahaztuko ez den eguna izan zela urriaren 6 hura.



Ura guztion eskura!

S. Esnaola 34, etxeazpia
20700 ZUMARRAGA

© 72 04 23



MAPFRE

Aseguru etxea

S. Esnaola, 6 • © 72 20 00 - Fax: 72 24 00
20700 - ZUMARRAGA



JAKIN

Bulegoko eta merkataritzako
makinen salmenta eta
konponketa

Labeaga, 12 © 72 36 08 20700 URRETXU



ILLARGI, E.A. okindegia

© 72 02 11 - Fax: 72 04 11

Azkoitirako bidea, z/g 20700 URRETXU



ARANTZA URRETABIZKAIA MENDIOLA

Egunero itxgortua

Txigorlekua: S. Esnaola, 34, etxeazpia.


© 72 13 48 Etxekoa: 72 48 46
ZUMARRAGA 20700

Nahikoa aparkaleku al dago Urretxu-Zumarragan?



Juan Miguel Blazquez. 34 urte

Nire ustez aparkatzeko oso leku gutxi dago bi herriotan eta dagoena, ez da oso aproposa. Aparkaleku egoki bat egin beharko litzateke. Bestalde ez zait bidezkoa iruditzen Gernikako Arbola plazako aparkalekua Eroskik bereganatzea.



Ibon Araiztegi. 23 urte

Aparkaleku batzuk ondo daude, baina beste asko ez daude ondo egokiturik. Adibidez, Laket-eko aparkalekua oso motz geratzen dela iruditzen zait.



Nekane Larrañaga. 24 urte

Aparkaleku gutxi dagoela iruditzen zait, leku zabalagoak beharko lirateke herriko mugimendu normala ez oztopatzeke, askotan izugarritzko ataskoak sortzen baitira.



Maier Rodriguez. 21 urte

Herrian zehar kotxez gehiegi ibili ez arren, asteburuetan aparkatzeko tokia urria dela pentsatzen dut.



Duela 16 urte zinema munduan, produkzio lanetan diharduen urretxuarra. Egun, Gasteizko zine eskolan produkzioa irakasten eta zinemari buruzko master bat koordinatzen ari da. Euskal Herrian eta Estatu mailan makina bat produkzio lan eginikoa da, guztira 100 dokumental, 25 luzemetraia, telebista desberdinetarako 6 serie eta 25 iragarki publizitario, Codorniu eta Campsare-nak hauen artean, egin ditu.

La madre muerta eta *Contra el viento* dira produzitu dituen azken filmeak. Euskal Herriko aktore eta zuzendari gehientsuenak eta Estatu mailako asko ezagutzeko parada izan du eta handien artean, Antonio Banderas, Jorge Sanz eta, batez ere, Rosario Flores goraiatzen ditu duten izaeragatik eta lan egiteko garaian arazorik ematen ez dutelako. Ramon Barea, Ramon Agirre, Pako Sagartzu eta abar luze batekin lan egitea ere gustoko du hala ere.

Zuzendariei dagokionez, Andu Lertxundi nabarmentzen du, taldean lan egiteko duen ahalmena eta goxotasunagatik. Baina Juanma Bajo Ulloa ere gustokoa du zuzendari lanetan.

Oscarra emateko ahalmena balu, Mikel Garmendia eta Kontxu Odriozola aktore euskaldunei emango lieke.

FINA SALEGI

EDURNE

Punta puntako moda
Aukerarik hoberena
gizonezko eta gazteentzat

Piedad, 18 © 72 14 17 ZUMARRAGA



TXINATAR JATETXEA

Dasta ezazu gure janaria!

%10eko beherapena urrian modulo hau entregatuz gero!

Labeaga 33
(Madaya)

URRETXU © 72 52 43

BIONA


AROSZTEGIA

© eta Faxa: 72 02 55

Erratzu, z/g 20700 URRETXU

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:




kutxa fundazioa
fundación kutxa

- gipuzkoa donostia kutxaren
- gizarte-ekintza
- obra social
- de la caja gipuzkoa san sebastián

Santanastasia jaien emaria



11 lagun talde aritu dira aurten karroza lanetan, eta **BAKKO** taldeko sorginek **San Juan San Juan heldu da** izeneko karrozarekin eskuratu zuten lehenengo saria. Hementxe dugu Pekineko bileren ondorengo lehenengo fruitua. Zorionak eta eutsi goiari!!!



Uhhmm, nork dasta zitzakeen larunbatean Ederrena pilotalekuan prestatutako oilo zaharrak saltsan. Are gehiago argazkian dugun sukaldari trebatu honek, Imanol Jauregi irabazleak, egindakoa. Zorionak!!! (hi, **OTAMOTZ** kideok oilo zaharra, gaztea edo oilaskoa *oilotokian* lehenbailehen dastatzeko irrikitan gaudek).



Igande goizez izan zen zerikusia Gernikako Arbola plazan ospatutako **ARTISAU ETA EUSKAL PRODUKTUEN ERAKUSKETAN**. Beste gauzen artean, pilotari onenek erabiliko dituzten tresnak herritarren aurrean izan ziren ikusgai.



Hona hemen, astelehen gauetz **KANTU AFARIAN** jendea kantari jarri zuen musika talde bikain eta alaiak. Datorren urtean, formalago ibili festetan, eztarria behar bezala izateko. Gu ere zainduko gara, ejem, ejem. Txin, txin. Eutsi goiari!!! Eta gora txorizo bokadillo beroak eta kantu-liburuska dotore eta koloretsuak.

Munch

Barne jantziak - Lencería

Legazpi, 9 ☎ 72 43 58 ZUMARRAGA
San Martín, 18 ☎ 42 42 14 DONOSTIA

LIBURUENDA

GANBARA

Labeaga, 52 Tel. eta Faxe: 72 50 45
20700 URRETXU



ARTYRO

Markoketa lanak eta
Arte Ederretako tresnak

Ipeñarrieta, 4 ☎ 72 14 20
20700 URRETXU

Zumárraga

Kanpotik **Zumárraga ezagutzera** etortzen diren guztiek, Zumárragan Real Academia de la Lengua Española-ren arauak herriko zenbait lekutan eta komunikabideren batean ondo betetzen dela ikusten dute. Izan ere, arauaren arabera, hitz esdrújulek tildea daramate (adibidez, príncipe, plátano, murciélago, albóndiga...). Zumárranoen edo Zumárragueñoen herria Zumárraga da, Zumarragarrena berriz Zumarraga

NONDIK DATOR!

ALBISUA

ALBISUA abizena ezaguna dugu Zumarraga eta Urretxuko herrietan. ALBISUA bezala, abizenen etimologietan adituak direnek ALBISU, ALBIZUA eta ALBIZU deiturak ere esanahi berekoak direla diote. Hauen esanahia albitz (gaztelera "heno") ugari dagoen lekuarena da, "albitz" + "tsu" egituran bana daitekeela. Abizen honen jatorria toki anitzekoa da. Esate baterako ALBISU eta ALBIZU tarrak Zaldibiatik, Lizarrako inguruetatik, Lazkao, Ataun, Amurrio (Araba), Bizkaiko Gordexola eta Arratiatik omen datoz. ALBISUA eta ALBIZU tarrak, ordea, Bergara eta Elgetatik. Hau da, oso hedatuta dagoen abizena

ESKOLARA! ZERTARAKO?

Iraila ..., urria ..., liburuak ..., etxeko lanak..., azterketak ..., aprobatuak ..., suspentsoak ..., eskola! A ze txapa!

Baina, eskola, hori bakarrik al da? Matematikak akaso, biharko etxeko lanak, astearteko azterketa, ostiralean etxera eraman beharreko notak?

Ez, ezta pentsatu ere. Eskola, momentu honetan, haurrak ikasteko duen errekurtsorik onena da, baina baita ere, gaur egun, eskola, haurraren sozialgintzarako errekurtsorik nagusienetakoa dugu.

Azken honek esan nahi duena zera da, eskola, aita-ama eta haurren arteko harremana hobetzeko laguntza ezin hobe dela: etxean bizi duten aginte gogorra edo eskasa, ikasketen emaitza onen exigentzia, ikaslearen ardurak, haurrari eskaintako gehiegizko babesa, gurasoekiko menpekotasuna eta autonomia, eta guraso eta seme-alaben artean gertatzen diren eguneroko gertakizun guztiak.

Aldi berean, eskolak erantzukizun handia du haurren arteko harremanen jarraipenean: beraien arteko norgehiagoka, inbidia, zenbait hurrek jasaten dituen bazterketak, leialtasunak, neska-mutilen arteko harremanak, taldearekiko egokitasuna eta errekonozimendua ... etab.

Haurrak bere buruarekiko erlazioa hobetzeko behar dituen baliabideak: bere buruarekiko konfidantza, bere nortasun identitate sentimendua, bere gorputzaren bizipena, bere ahalmenen ezagutza, dituen beharrak, nahiak eta desioak ... etab.

Guzti honegatik, gurasoek eskolaren funtzioa ulertzeko garaian erreflexio sakona egin dezaten beharrezkoa da, hau da, eskola (eta irakasleak), beren seme-alaben heziketako alderdi GUZTIEN bideratze prozesuan ezinbesteko laguntza direla pentsatzerakoan.

Era berean, eskolak errekurtsorik gehiago bultzatu behar ditu **HEZIKETA OSOA** aurrera eramateko.

ESKOLARA? HORRETARAKO!



Josi Etxeberria
(Psikologoa)

Argazki Estudioa
Argazki eta bideogintza
Ipeñarrieta, 20 & 72 23 19 URRETXU



Mutua General de Seguros

Iparragirre, 11-etxeazpia
20700 URRETXU ☎ 72 25 99

ITURGINTZA



LUIS ANGEL

Gure erakusketan zain gaituzu!

Deskargarako bidea, z/g. ☎ eta Faxes: 72 54 59

ELIZ - KALE

AUTOESKOLA

Bidezar, 11
20700 ZUMARRAGA ☎ 72 04 52


TEKNOLOGIARIK BERRIENA ZURE ESKU

HEGI ALDE AUTO

- KONPONKETAK OROKORREAN
- IBILGAILU SALMENTA
- GARBIKETA ZUBIA



Mugitegi, 17 ☎ 72 51 37 - URRETXU



RENEDO argazkiak

Jaunartzeak • Bataioak • Ezkontzak

Labeaga 52-54 F 20700
URRETXU

☎ 72 56 82
72 22 92

ARROSPIDE ESTATU BATUETAKO IDAHON

Angel Arrospide Zumarragan ezkontzaz geroztik bizi den hogeita hemezortziko Leaburutarrak, egunero Oñatiko hiltegian lan egiten du baina Euskal Herri osoan eta baita kanpoan ere ospetsua bada, aizkolari moduan da, dagoeneko, eta oraingoz, bost aldiz lortu baitu Euskal Herriko Aizkolari Txapelketa

Estatu Batuetako mendebaldean dagoen Idahoko Boise (hemendik hegazkinez hamasei ordutara gutxi gorabehera dagoena) uztailearen 27aren eta 30aren artean **JAIALDI '95** ospatu zen. Bost urtez behin egiten den jaialdi hau ospatzeko asmoz EEBBetako hainbat lekutatik (Elko, Reno, Chino, New York ... eta abar luze luze bat) makina bat euskaldun edota euskaldun jatorriko hurbildu zen Boisera, hauei Euskal Herriko joandakoak ere gehitu behar zaizkie. Batzuk lanera joandakoak ziren, Tapia eta Leturia, Añorgako Arkaitz Dantza Taldea, zenbait kirolari eta zenbait bertsolari. Beste batzuk berriz oporretan joandakoak ziren, hauen artean Mikel Markez eta Erramun Martikorena. Honez gain, Eusko Jaurlaritzaren ordezkariak, eta Gernikatik etorritako hainbat jende aipatu behar da (Boise eta Gernika anaitutako herriak dira).

Kirolarien artean, Zumarragan bizi den eta dagoeneko erdi zumarragartzat hartu behar dugun Angel Mari Arrospide ere han ikusi genuen. Boiseko Euskal Etxean topatu genuenean honelako elkarrizketa izan genuen:

Angel, noiz eta noiz arte etorri zarete?

Joan den asteazkenean, hilak 26 etorri ginen. Atlantara berandu iritsi ginela, gure zain zeuden 200 pertsonak, errezibimentua egin gabe joan behar izan zuten etxera. Itzuli ostegunean, 3an joango gara.

Zeintzuk etorri zarete eta noren

bidez?

Aizkolariak, Larretxea, Nazabal eta ni neu. Harrijasotzaileak, Goenatxo, Perurena, Zelai eta bertsolariak Lopategi, Enbeita eta Ajuria. Gu Jose Mari Artiatx hemen bizi den Muxikako enpresari baten bidez etorri gara, bera da esponsorra edo patrozinadorea.

Ze lan egin duzue?

Euskal Etxearen aurrean agerpentxo bat, eta gero Jaialdian bi erakustaldi.

Hemengo ikuslegoa eta hangoa konparatuz, zer esango zenuke?

Ba... han baino gehiago estimatzen dutela.

Autografoak ezpaletan firmatzen eta firmatzen aritu zarete...


Han herri handietan firmak eskatzen dizkigute baina besteetan ez, ondo etortzen zaigu idazten praktikatzeko.

Ikuslegoaren artean emakume asko ere ikusi dugu...

Eskerrak ingelesik ez dakigula, bestela komeriak izango genituzke.

Atzerriko beste leku batzuetan izan al zarete?

Bai, Japonian izan ginen, jendea txoraturata zegoen, baina hango harrera ez zen izan hemengoa bezain bizia. Begiratzaren zuten bai, baina begiak tapatzen zizuten, beldurtu egiten ziren nonbait. Elkon lau aldiz izan gara, Suitzan ere egon gara. Boise, lehenengo aldia izan da, baina jendea oso gustora gelditu da eta dirudienez hurrengo urtean egun osoa herri kiroletarako nahi dute. Mugimendua orain dela 20 urte edo hasi



zen, Elkon hasi zen mugimendua, gero Australiara ere egin ziren bidaiak.

Zer ikuspegi duzu Boisean aurkitu duzunari buruz. Zerk harritu zaitu?

Hemen denak elkartuta daude, berdin pentsatzen dute. Hainbeste mila kilometro egin eta giro euskalduna topatzea ikusgarria eta ikaragarria iruditzen zait.

Bukatzeke, hemen lana soberan omen dago. Hona bizitzera etorriko zinateke?

Egia esateko, aitortu behar dizut lehenengo aldiz Elkora etorri nintzenean, 27 urte nituenean, tentatuta egon nintzela bertan geratzeko. Garai hartan egurretan ibiltzen nintzen, egun osoan 2000 pezeta irabazten nuen eta hemen orduko 2000 pezeta agindu zidaten. Oso berotuta egon nintzen, baina azkenean atzera egin nuen. Ez ginen horretara etorri eta ... badakizu, penatan ... baina gero itzultzeaz ez dut damurik izan.

Basque Centerreko taberna, hango eta hemengo euskaldunetz beteta utzi genuen, jendea, antza denez, aurtengo jaialdiko ospakizunei bukaera emateko gogorik gabe zegoen.

URRETXU
OPTIKA - GABINETE AUDIOPROTESIKOA

Iparagirre, 1 © 72 59 68 20700- URRETXU

KALITATEA ● TEKNIKA ● ZERBITZUA ● MODA

ARDANTZE

Nekolalde, 1 © 72 56 19
Almazena © 72 58 71 URRETXU

MIKOLOGIA

ALDIRI Kultur Elkarteak antolatutako mikologi asteburua:

Irailak 29: Arratsaldeko 7:30etan **diapositiba emanaldia** Kultur Etxean.

Irailak 30: **Mendi irteera perretxi-kotara**, ondoren Arantzadi Zientzia Elkartekoen laguntzaz Ederrena pilotalekuan sailkapena. egingo da.

Urriak 1: Goizez, **perretxiko erakusketa** Areizaga plazan mahai didaktikoak, dastapena eta trikitixa izango da.

LURRA DANTZA TALDEA

ERAKUSKETA: Irailaren 26tik urriaren 1a bitartean, taldearen **jantzi eta tresneriari buruzko erakusketa** liburutegi berria izango den lokalean.

DANTZA JAIALDIA: irailaren 30ean Dantza jaialdia Ederrena pilotalekuan iluntzeko 8etan.

IKASTAROAK

➤ **BISASTI AEK euskaltegiak** ireki du 95-96 ikasturterako matrikulaldia. Maila guztiak eta **EGA** eta **alfabetatze** ikastaroez gain, **HKA** ikastaroa, **16 urtez beharagoentzat ikastaro** berezia eta **1. 2. eta 3. hizkuntz eskakizunak** prestatzeko ikastaroak eskaintzen dira. Klaseak, goizez, arratsaldez eta gauez izango dira. Informazio gehiago jasotzeko jo **BISASTI** euskaltegira, Zumarragako Legazpi

kalea 14, 3. A edo 72 04 58 telefono zenbakira deitu.

➤ **URRETXU ZUMARRAGAKO UDAL EUSKALTEGIAK** zabaldu du 95-96 ikasturterako kanpaina. **Egunean, 5, 4, 3, 2 orduko ikastaroak maila guztietan, Euskalduntzen, alfabetatzen eta EGA**n. Astean 4 ordu alfabetatze-saioretan. Langabetuek matrikula kostuaren erdia ordaintzen dute. Gainerakoentzat ere baditugu diru laguntza bereziak, asistentzia eta aprobetxamendu sariak. Informazio gehiagorako jo **UDAL EUSKALTEGI**ra, Labeaga 42, edo deitu 72 33 10 telefono zenbakira.

IPARRAGIRRE HEGALARIA

Urriak 1: Donostiako Anoeta belodromoan Zeanuri herriko 150 pertsonak antzezitutako **IPARRAGIRRE HEGALARIA** ikuskizuna izango da ikusgai arratsaldeko 6:30etatik aurrera.

ZORIONAK



Manex Aranburu Igartua, urtebete beteko du urriaren 3an. Zorionak zure lehengusu Mikel eta Bittor anaiaren partetik.



Txarli, 31 urte beteko ditu urriaren 8an. Maite haugu. Hire laguna(k).



Eneida Mazmela, 23 urte beteko ditu urriaren 19an. Zure lagunaren partetik, zorionak!!!



Arantxa Urkiola, 28 urte beteko ditu urriaren 19an. Zorionak eta ondo pasa. Zure lagunak.



Arantxa Loinaz, 20 ta ... urte beteko ditu urriaren 28an. Zure irrifar alaia eskain diezaiguzula hurrengo mendi tontorrean.



Mari Carmen Mendia, 58 urte beteko ditu urriaren 29an. Eta urte askotarako!!!

